

## Prensa Oharra Nota de Prensa

# Foru Aldundiak Samaniego foru egoitzaren zaharberritze integrala lizitatu du 8,2 milioi euro inguruan

*Zentro berria egungo egoiliarren beharretara egokituko da, eta psikogeriatria unitate bat, banako gelak eta gune intimoagoak eta etxe giroa izango ditu*

**Gasteiz, 2023ko irailaren 26a.** Foru Gobernu Kontseiluak, gaur goizean, onespena eman dio, Gizarte Politiken Sailak proposatuta, adinekoentzako Samaniego foru egoitza handitzeko eta goitik behera zaharberritzeko obrak kontratatuzko espedienteari. Lizitazioaren aurrekontua 8.180.641 euro da, eta, beraz, eraberritze hori da Foru Egoitzak Eraberritzeko eta Modernizatzeko Planean egindakoetatik handiena. Obrak Next Generation EU Funtsek finantzatzeko dituzte, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan.

Obrak datorren urteko lehen hiruhilekoan hastea espero da, eta 18 hileko epean gauzatu beharko dira. Birmoldaketa espazioak erabat berregituratzea izango da. Horren barruan sartzen da egoitzaren barrualdea erabat eraistea, bai eta beheko eta lehenengo solairuak handitzea ere. Horrekin, egoitzak 616,32 m<sup>2</sup> gehiago izango ditu.

Samaniego Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) egoitza zentro zaharrenetako bat da, eta zaharberrikuntzari esker, zentroa gaur egungo egoiliarren beharretara egokitu ahal izango da. Hasieran, erabiltzaileek nolabaiteko autonomia zuten, baina, pixkanaka, foru egoitzetan bizi direnak zaharragoak eta ahulagoak dira, mendekotasun maila handiagoa dute eta normalean narriadura kognitiboa izaten dute.

Samaniego berriak psikogeriatriako unitate bat izango du, dementzia duten adinekoei arreta emateko. Gainera, GOFE pixkanaka martxan jartzen ari den zaintza eredu berrira egokituta egongo da, alegia, gune intimoago eta lagunartekoagoak eta etxe giroa izan nahi dituzten egoitzak.

Handitze horri esker, gelarik gehienak banakakoak izango dira, gaur egungo banaketaren aldean, zeinean gela guztiak partekatuak baitira. Birmoldaketa amaitzen denean, 39 geletatik 37 banakakoak izango dira. Espazioak zabalagotzearen eta egoiliarren intimitatea hobetzearen ondorioz, plaza kopurua murriztu egingo da, oraingo 48etatik 41era pasatuz, 21 eta 20 egoiliar hartuko dituzten bi bizikidetza unitate txikitan banaturik. Eguneko arretarako 4 plazarekin osatuko da zentroa.

Bigarrenik, eraberritzeak ahalbideratuko du eraikina gaur egun indarrean dagoen araudira egokituta egotea, bai irisgarritasun eta suteen aurkako babesaren aldetik, bai jasangarritasun energetikoaren aldetik.

Berrantolaketa osoa da, eta lortzen du logelen banaketa eta elkarrekin bizitzeko espazio erkideekiko haien lotura optimizatzea. Banaketa berria bi bizikidetza unitateren inguruan antolatzen da.

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

Beheko solairua arreta behar duten pertsonentzat izango da. Lehenengo solairuan, profil psikogeriatricoa duten pertsonak biziko dira. Bizikidetzeta solairu horiek biek terrazak eta pergolak izango dituzte.

Bigarren solairu eta estalkiartea beste erabilera batzuetarako erabiliko da, hala nola administrazio zerbitzuetarako eta terapia aretoetarako, eta sotoa zerbitzu eta biltegietarako erabiliko da.

### **Komunikazioa**

Iparraldeko fatxadako handitzean, komunikazio gune berri bat sortuko da, eraikinaren solairu guztiak elkarrekin lotuko dituena. Atxikitako bolumen hori eraikineko sarrera nagusiaren gainean ataripe bat egiteko aprobetxatuko da. Hegoaldeko fatxadan, handitzeak sortutako eranskinak espazioa handiagotu egingo du beheko eta lehenengo solairuetako geletan.

Egoiliarrek erabiltzeko aurreikusten diren espazio guztiek oheak edo tamaina handiko elementuak mugitu ahal izateko moduko neurriak dituzte. Era berean, garabiak instalatu ahal izango dira adinekoak lekuz aldatzeko. Ebakuazio beharrak direla eta, suteetatik babestutako bi eskailera behar dira, bata bestetik urrutieneko puntuetan kokatuko direnak.

Eraikinak airea girotzeko sistema izango du, eta berokuntza sistema lurzoru erradiatzailea izango da, bero sorkuntza eta hozgarria geotermia eta aerotermia konbinatzen dituzten iturri berriztagarriez baliatuko direlarik. Estalkian plaka fotovoltaikoak instalatuko dira energia elektrikoa sortzeko. Eraikinak A etiketa energetikoa izango du.

## **Foru Aldundiak artxibo elektroniko bakarra abian jartzea bultzatu du**

*Gainera, "Ibilbide orri" bat onetsi da, zeinak 2023tik 2026ra bitartean egin beharreko ekintzak zehazten baititu*

Gobernu Kontseiluak, Kultura eta Kirol Sailaren mendeko Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuak proposatuta, "Dokumentuen kudeaketa eta artxibo elektronikoa Arabako Foru Administrazioan integratzeko erreferentzia esparrua" onetsi du gaur. Esparru horretan, kudeaketako eta artxiboko sistema elektronikoak ezartzeko eginkizun, antolamendu eta teknologia mailan funtsezko betekizunak ezartzen dira, bai eta hartan oinarritutako "ibilbide orri" bat ere, 2023-2026 aldian inplementatzeko ezinbestekoak diren ekintzak zehazten dituen.

Dokumentu elektronikoak eta artxibo elektroniko bakarrak Arabako Foru Administrazioan gaur egun duten ezarpen egoera ebaluatzeko, 2022ko martxoan sail arteko lantalde bat eratu zen, Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuaren koordinaziopean. Lantalde hori honako zerbitzu hauetako profesional teknikoek osatzen dute: Antolaketa Zerbitzua; Kalkulugunea; Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua; Errolda Kudeaketako eta Jakinarazpenetako Unitatearen Atala; Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea; Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzua, eta Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzua.

Gaur onesten diren dokumentuak lantalde horretan lortutako ondorioetatik eta sail eta foru zerbitzuekin egindako kontrastetik sortu dira.

Laburbilduz, esparru dokumentua tresna metodologiko eta praktiko oso baliagarria da abian jartzeko Arabako Foru Administrazioan dokumentuen kudeaketako eta artxiboko sistema elektronikoa.

Prozesu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu kudeaketa Integralaren eta Dokumentu ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 LEGEA onestearekin batera egin da.

Hauek dira esparru dokumentuaren ezaugarriak:

- Arabako Foru Aldundiak, erakunde autonomoek eta foru sozietate publikoek sortutako dokumentu guztiei aplikatzen zaie, dokumentu elektronikoaren ezarpen integrala bermatuz.
- Formatu elektronikoan sortutako dokumentuetan oinarritzen da, nahiz eta haren jarraibideak, hurrengo fase batean, paperezko dokumentuei ere aplika dakizkiekeen.
- Antolaketa Zerbitzuak arlo horretan egindako ekintzekiko integrazioa bilatzen du, bai eta etorkizuneko Dokumentu Serieen Katalogoa eta lehendik dagoen Prozedura eta Zerbitzuen Katalogoa (CPS) lotzea ere.
- Espediente eta dokumentu elektronikoetara sartzeko irizpide orokorrak izateko beharra ezartzen du, informazioaren segurtasuna eta eskuragarritasuna bermatuz.
- Administrazio elektronikoaren e-EMGDE metadatuaren eskema erabiltzen du, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren esparruan.

- OAIS (Open Archival Information System) sisteman oinarritutako babes digitaleko eredu bat proposatzen du, artxibo eginkizun guztiak Filenet biltegian ezartzeko premia gutxiago egon dadin eta babestu beharreko informazio iturriak zabal daitezzen, dokumentu digitalen epe luzerako integritatea eta eskuragarritasuna bermatuz.

Esparru dokumentua izango da Foru Aldundiaren dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika idazteko oinarria, zeina tartean diren foru zerbitzuek egingo baitute, eta, bereziki, Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuak eta Antolaketa Zerbitzuak.

## **Foru Aldundiak gatz eta gatzun horniketa esleitu du neguko bidezaintzako datozen hiru kanpainetarako**

Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan onetsi du esleitzea 747.489 euroan, BEZa barne, neguko bidezaintzako datozen hiru kanpainetarako (2023/2024, 2024/2025 eta 2025/2026) gatz eta gatzuna horniketa kontratuak.

Gatza hornitzeko kontratua 559.201 eurokoa da eta Ibérica de Sales SA enpresari esleitu zaio; gatzuna hornitzeko kontratua, berriz, 188.288 eurokoa da eta Pérez de Cárcamo SA enpresari esleitu zaio.

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak gatza eta gatzuna erabiltzen ditu izotza sortzea prebenitzeko eta urtzea azkartzeko, bai eta neguko hilabeteetan Arabako errepideetan elurra errazago kentzeko ere.

## **Foru Aldundiak 20.000 euroko laguntza onetsi du Aita Mari salbamendu ontzirako**

Foru Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Itsas Salbamendu Humanitarioa (SMH) euskal elkarteari 20.000 euroko laguntza ematea onetsi du, Mediterraneoan laguntza humanitarioa emateko eta txalupak erreskatatzeko Aita Mari bere ontziarekin egiten duen proiekturako.

Elkarteak laguntza humanitarioko, itsas salbamenduko eta larrialdi egoeran dauden itsasontzien erreskateko lanak egiten ditu, migratzaileek eta errefuxiatuek ihes egiten duten itsas ibilbideetan, batez ere Libiako kostaldean dauden nazioarteko uretan, Mediterraneo erdialdean. Azken urteotan, Aita Mariak bizirik erreskatatu ditu naufragioen biktima asko.

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak proposatuta, Arabako Foru Aldundiak uste du interes humanitarioko arrazoiak daudela Aita Mari itsasontziarekin lan egiten duen erakunde horri laguntzeko, gerratik, gosetik edo presiotik ihes egiten duten migratzaileen eta errefuxiatuen heriotza saihesteko. Erakundearen helburua da, halaber, giza eskubideen urraketa salatzea, eta, bereziki, emakumeek eta pertsona kalteberenek migrazio ibilbide irregularretan jasaten duten kaltea.

Itsas Salbamendu Humanitarioa Erreskateko Flota Zibilaren Sareko kide da. Sare horren helburua da erreskate eragiketarako koordinatzea eta monitorizatzea migratzaileek eta errefuxiatuek Mediterraneo erdialdean erabiltzen dituzten itsas ibilbideetan.

## **Jon Anda Arabako Foru Aldundian sartu da Lurralde Antolaketako zuzendari gisa**

Gobernu Kontseiluak Jon Anda Lurralde Antolamenduko zuzendari berria izendatzea onartu du gaur. Abokatu, Anartz Gorrotxategi diputatuaren lantaldeko kide izango da Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu sailean.

Anda zuzenbidean lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta ibilbide luzea egin du abokatutzan, Arabako toki-erakundeekin estu lotuta betiere. 1987az geroztik jarduneko abokatu izan zen, eta zuzenbide administratibo-publikoan espezializatu zen. Hainbat udaletan eta beste erakunde batzuetan (kuadrillak, mankomunitateak, kontzejuak, aldundia, Eusko Jaurlaritza) lan egin zuen, eta, bereziki, hirigintzaren eta funtzio publikoaren arloan.